

JEAN PIERRE GOYTINO, LOS ANGELESETAKO NOTARIOA



Jean Pierre Goytino

J e a n - P i e r r e Goytino Ainhoan sortu zelarik 1860an, ez ziztaion iñori gogoan pasatu, urrunera ere, egun batez notario izan zitekeenik. Haren aita, Arnaud, mugazaina zen eta semea Ainhoarra dugu, hala beharrez, sortu zen urtean aita Ainhoan baitzegoen. Hau, alargundu ondoan, Gaxuxa Etxeberri Kanboarrarekin ezkondu zen. Julie Lapêtre, lehen emaztea aldiz, Biarnesa zuen, Urdozera igorria izan zelarik, han ezagutua. Gure idazlearen aita, Arnaud, Larrañen sortua zen, ez jatorriz Xiberotarra zelakotz bainan bere aita mugazaina izanez, garai hartan Larrañen zegoelakotz.

Artetik errateko, aitona, kontrabandistek erail zuten Baigorriko mendietan, 1833an. Osaba bat ere mugazain lanetan hil zen, ez dakigu soberakinik xuxen nola. Behin, Arnaud (aita) kontrabandistek, zanpatu zuten, Jean-Pierre haurrarekin ilbaldi bat egiten ari zelarik, Kanbo eta Ezpeleta artean.

Horrelako oroitzapenekin, ez da beraz harritzekorik gure Jean-Pierre ez bada bera mugazainetan sartu. Hortik eta notario izatera, bada bide halere.

Lassalleko fraile

Hamalau urtetan, Lassalleko fraileetan sartu zen eta sotana jauntzi. Hazparneko kolejoan egin zuen azken egonaldia Mixel Elizanburu (Inocentius) eta Arnaud Aguirre (Juvenal) fraileekin, Janpierre Arbelbide, Martin Ducq, Agustin Bastres eta Martin Lapeyre misionesten etxe berean. Murru beretan bizi ez baziren ere, Pierre Broussain, Jean Hiriart Urruty, Gratien Adema “Zaldubi” Hazpandarrak ziren. Eta ez nituzke bertsolariak ahantzi nahi : Bordaxuri, Jose Mendiague, Aña Debrua, Katxo, Xetre, Larralde Bordxuri, denen artean “Hazparneko eskola” deituak izatea merezi baitute. Giro horretan duke gure Goytinok bildu euskaltzale mikrobioa.

Ez zela fraile izateko egina idurituri, frailegoa uzteko nortasuna ukan zuen: ez zitekeen urrats arrunta garai haietan. Eskola publikoan sartu zen Zuraiden, xuri-gorri, errepublikar-erregetiar, antiklerikal eta elizatiarren arteko borroka gogortzen ari zenean. Ez zen aski errepublikar agertu eta, beraz, eskolatik kanpo eman zuten.

Los Angeles hirian

Orduan zen Ameriketara joan. Heldu eta, lehen lana, Leonis, bere ahaide zahar aberats puxantaren izenean izenpetu zuen mila zortzi ehun eta berrogeita hamar dolarreko “billet à ordre” izeneko ageria, zazpi ehun ardiren erostekoa! Bankotik dirua eskuratu zuen baina, Leonisek afera auzitan eman eta, auzia

bururatu aintzin karrosa ixtripu baten ondorioz hil baitzen... Goytino diruaren jabe gelditu zen.

Le Progrès frantses astekarian ari baitzen, dirutza horri esker zitekeen kasetaren jabe egin, horri datxikola sortzen zuela euskarazko astekari bat: *Kaliforniako Eskual Herria*, gure historioan doi bat iraun duen euskara hutsezko lehena. Euskara hutsezkoa diogularik, zinez hala zen, iragarkiak berak euskaraz baitziren, bakar batzu ez bada, frantsesezko kasetatik hartuak.

Berak dioenez, berrehun alerekin hasi eta bi mila aletara heldu zen. Menturaz egia dario. Bainan, noiz behinka ikusten dugu ohar hau: "*Paper hau errezebitu nahi ez duten herritarrek aski dute Postan errefusatzea eta Postak berak abisatuko gaitu*". Pentsatzen eskutan zituen helbide guzietara igortzen zuela dugu bere astekaria, harpidedun izan ala ez.

1893ko uztailetik, nonbait han 1899ko otsaileraino iraun zuen. Kasetaren desagertzeaz *Los Angeles Times* egunkarian irakurtu dugu: *Most of these people (euskaldunak) are sheepmen and not given much to reading of papers, and so Goytino stepped down and out from the editorial chair*. Lerro hauek garbiki erraten dute, irakurle eskasez zela gelditu. Hasieran lagundu zuen "Syndicat de capitalistes basques" taldeak utzi ote zuen, beherago aipatzen dugun auziaren ondorioz? Bost urte eta erdi iraun zuen halere.

Legegizon

Oso ezaguna izanki eta, Euskaldun analfabetoak heldu zitzaizkion laguntza eske. Ikusten dugu auzitegietan itzultzale lanetan aritu zela, hala nola Eñaut Karrikaburu eta Mixel Erreka auziperatuak izan zirelarik, beren ardiak gobernuko oihanetan ibilirik, bai eta Toledo izeneko batek Gezanburu euskalduna erail zuelarik, Goyhenetxe bat lekoku deitua izan zelarik.

Behin zango bat mundu horretan sartu eta, lan serioagorik ere eman zioten. Robert de Kersauson de Pennendref bai eta

Charles Cassagne gazteen 'guardian ad litem' edo aita ordeko izendatua izan zen.

Leonis-en ondoregoari doakionaz, honen hiru ilobek eta beste batek Goytinoren eskutan eman zituzten beren interesak. Leonis-en alargunak Etxepareri egin auzian, Etxeparek Leonis-en ontasunak ibili zituen moldearen jukatzea Goytinoren gain izan zen.

Batere ez zuelarik legeetaz formakuntzarik, auzitegietan ibiliz ikasi poxiaz kanpo, notario onartua izan zen. Egia da garai haietan, Ameriketan, notario batek ez zuela hemengo notarioen lana egiten. Analfabeto mundu hartan ez zitekeen hautagaiik trumilka. Idazkari publiko baten eite handia zuen notarioak. Bainan zeregin seriosagorik ere bazuen: testamentu, kontratu, salpen, ipoteka, legezko paper... Lan horren seriosotasunaren frogatzeko erran dezakegu, kargutan sartzeko, HH Mark, Kaliforniako gobernadorearen aintzinean zin egin zuela, 1893ko apirilaren 14an, kargu hori bi urterentzat ardietsirik Sacramento, Kaliforniako hiri nagusian.

Ez dugu Goytinoren aktarik irakurtu ahal izan, nahiz baten mikrofilma ukan dugun eskutan, bainan ezin irakurtua. Frantzian, notario baten akta guziak elgarrekin emanak dira, kronologikoki sailkaturik. Kalifornian aldiz, egun berean, notario guziek egin aktak oro, elgarrekin daude eta baten aktak aurkitzea lan hurria da, jakinez gainera mikrofilmak ez direla kalitate onekoak. Norbaitek egin behrako luke lann hori egun batez, behar den denbora hartuz.

Eskual Herria bere kasetan behin idatzi duenaz, 1894ko martxoan Los Angeles kondadoan gauzatu 1.243 agerietarik 237 berak eginak zituen. Aitortzen dut ez dudala sinesgarritasun handiegirik Goytinok ematen dituen zenbakietan, izan dadin azken pondu honetan, ala kasetaren saltze kopuruan. Ala notario izateko eman omen zuen 10.000 dolarreko bermean...zinezko fortuna !

Bere publizitatean dioenaz, izendatua izan den lehen notario frantsesa zen. Hala bada ere, ez zen bakarra izan ezen gutienez beste baten publizitatea ikusten dugu, laster, *Le Progrès* kasetan:

Le Mesnager deituarena. Gainera, azken honen eskutan zeuden Pierre Larronde euskaldun kapitalistaren interesak. Egia da Dalgarrarondo euskaldunarekin ezkondua zela. Bainan harrigarriago zaigu Jose Mascarel, Goytinoren aitagarrebak azken hau hautatu izana eta ez bere suhia. Leonis-i egin zion jokoaren gatik ote zioten, ez gehagoko konfidantzarik egiten?

Bestalde, ez dugu ongi ulertzen nolaz notario onartu zuten auzi horren ondotik : egia da ez zela kondenatua izan eta beraz afera horren aztarnarik ez zela gelditu auzitegiatiko agerietan.

Peko errekarat

Leonis-ekin egin bekatu berean erori zen kargu berrian. Jean Bizkai eta Fernando Dorre bi artzainek beren gostuz ikasiko zuten. Bi artzain gaizo horiek Goytinorengana joan ziren, ez akta bat idazteko bainan dirua bankoan sartu behar eta, euskaldun adiskide baten laguntzarekin segurrago izanen zirelaketz. Sartu zuten beraz, 'The farmer's and merchants bank', Goytinoren bankoan.

Bainan urte baten buruan, Bizkai itzuli zelarik, orai berak ere ezagutzen zuen bankora, diru kopurua erdira apaldua zitzaiola mendian zegoelarik bere ardien erdian, ohartu zen. Auzitegira joan zen. Jujek Goytino gelditzeko manua eman artean, hau bere baitarik joan zen jujearengana, baizik eta diru hori Bizkai jaunaren baimenarekin ateraita zuela Dorre-ren kondura pasatzeko: honi ere 400 dolar kenduak zizkion.

Kaliforniako Eskual Herrian abokat ona hartzea behin baino gehiagotan gomendatua zuen. Berak hala egin zukeen... eta bi artzainek aldiz, beren deretxoaz segur, bigarren mailako bat. Dena den, gure notarioak auzia irabazi zuen ... bainan euskaldunen konfidantza galdu, auzitegiak bere erabakia hartu aintzin: «*Quelle que soit l'issue de l'affaire, l'opinion publique, parmi les Basques surtout, est déjà faite*» irakurto dugu kaseta frantses batetan.

Astekaria gelditu berria irakurle eskasez, bezeroen konfidantza galdua, gure Goytinok handik harat deus onik ez zuen egin. Iduriz, bere ontasunak janez bizi izan zen zenbait urtez. Eta bazituen! Azken urteetan, ostatu zerbait bazuen eta, hor ere, edaria kontrabandan egiten zuen. Salatua izan zen eta auziperatua 1921an bainan auzitegiak erabakia hartu aintzin hil, pilik utzi gabe. Zenbait urte hartan utzia zuen emazteak pagatu zituen ehorzketa gastuak, bainan hil hobian ez zion kurutzerik ere eman!

Martin Bizkailuz

Goytinorekin batean beste euskaldun bat ere aipatu behar dugu laburzki: Martin Bizkailuz. Jean Hazpandarraren semea, 1840an Ameriketara joan ziren lehenetarik bat. Umexurtx gelditu zen, baina eskolatu. Lehenik hor berean eta gero, bi urtez, Parisen. Abokat jarri zen Los Angeles hirian, 1883 irian, naturalki euskaldunen abokata bilakatzeko zela. Bainan bazuen besterik ere: aste batez izan ziren 16 dibortzioetarik lauen abokata izan zen. Luxu handiengan bizi zen: sehi, piano eta kitaren erdian.



Martin Biscailuz

Honek ere astekari bat sortu zuen euskara hutsez: *Escualdun gaseta*. «*Escualdunak besteak besenbat bagirela erakusteco*». Hirugarren alea argitaratzean gelditu zen, ez zituelakotz inprenta pagatzeko behar zituen 75 harpidedunak bildu!

Oxarart izeneko baten ondoregoaz izan zen auziaren pagatzeko 30.000 \$ hartu zizkion bere bezeroari, Estatu Batuetan ordu arte ikusi zen abokat saririk handiena. Bi urteko oporrak iragan zituen European eta, itzuli zelarik, edanari eman. Behin baino gehiagotan preso egonik, honek ere artzain gaizo zenbait izorratu nahi izan zituen. Emaztearengatik berexirik, burua galdurik, bai eta bezeroak ere, absintak errea hil zen, 1899an, 46 urtetan.

Honen berri badakigu, publizitatea Goytinoren kasetan egiten baitzuen.

Orel Goldaracena

Beste abokat euskaldun baten publizitatea ere ikusi dugu. Orel Goldaracena, 1832 irian Urdazubin sortua zen Doña Poloniaren semea, San Franciscon sortu zen, iduriz. Ezkondua eta alaba bat bazuen. Euskara, espainola, frantsesa, italiarra eta portugesa mintzo zituen. Abokat bulegoa 1896an ideki zuen San Franciscon, nahiz bazuen jadanik 12 urte diploma bazeukala. Hernan deitu batekin partzuer ari zen. Honek ere publizitatea *Kaliforniako Eskual Herria* kasetan egiten zuen.

Nolako munduan bizi ziren batzu ala besteak jakiteko hona zenbaki zenbait Los Angeles hiriko jendetzaz.

1880: 11.000
1890: 50.000
1900: 100.000
1923: 2.000.000

Bizkailuzek zioenaz, 2.000ko bat euskaldun baziren Los Angeles eta inguruetan, 1890 irian.

Xipri Arbelbide

RED STAR LINE

(Isar Gortia.)

New York-etik Anversa-erat yuhan
diran bapurrak.

Atharutzen New York-etikasteazken
guzier.

Agente nautia: Los Angeles-etim.

J. P. GOYTINO,
309 Aliso karrika.



COMPAGNIE * GENERALE TRANSATLANTIQUE

New York-etik Havre-erat yuhan
diran bapurrak.

Atharutzen diran New York-etik eta
Havre-etik latunabate guziet.

Agente Nautia: Los Angeles-etim.

J. P. GOYTINO,
309 Aliso karrika.

Compagnie Bordelaise

New York-etik Bordalerat yuhan
diran bapurrak.

Agente nautia Californian:

J. P. GOYTINO,
309 Aliso karrika,
Los Angeles, Cal.

J. P. GOYTINO,

Notari Publikoa.

Kontratuak,
Salpenak,
Testamentak,
Legazko paperrak,
Ipotekak.

309 Aliso karrika Los Angeles.

Bidez Yoniteko

bat Luzue

Southern California Ry.

(SANTA FE ROUTE)

Yuhan da California-eratik loki eder-
renetara.

Pullman Sleeping Cars igortzen
ditu Chicago-eratik egun guziet.

24 oronez bidea lahurrago
hemenetik New York-eratik.

Hotel d'Europe

No. 450 BORTZARRA N HA KIKA

1 eta J. erator

San Diego, Cal.

Direkzione Berria

Kaibara ederrak eta garbiak.
Yateko hobereak

Pascal ETCHEVERRY, Nautia

HERNAN & GOLDARACENA.

Abokatak

San Francisco.

Kambara 28 eta 27

No. 26—Montgomery karrika.

M. V. BISCAILUZ.
ABOCAT ESKUALDUNA.

KAMBARA 72 TEMPLE BLOCK,
Los Angeles.

D. SAMSON, **F. L. GARRETT,**
Telefona No. 75

Garrett & Samson

Ehortsailoak
Baleumatsailoak

Franklin Zozietateko Ehortsailoak

234 N. MAIN KARRIKA.
LOS ANGELES.

Tu harkoak izizia yeluz
eta idoztekin,

Nahi baduzu tabakurik ez dagoen
har gazu ormentel burria "No Ta Be"
minkegizton baitira mirakulua. Bort-
kario guziztan ezinon etal da, 50 *pe*
eta puz bat—Sendatzen gataztira da
etala: **Hearling Kennedy Co. Chicago eta**
New York. 253

Max Wassman **J. R. Garvie**

Max Wassman,

Hortz-ahortzailoa
eta
Hortz-entoltsailoa
Kambara 12, Downey Block,
Tel. 145 **Los Angeles**

THE QUEEN

Shoe Store

JOS. MCGRAW, Yeluz,

100-102 N. Spring karrika, Los Angeles

Zapeta hoberenak
Zapeta edorrenak
Zapeta merkeanek

Guo hiru lortu zaharria eta
ezguzia.

Eskualdunen Botiga

234 Franklin eta Spring karrika, Los Angeles